

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Atal honetan, gure bezeroekiko harreman mota zehaztuko dugu, horren alde egiteko arrazoiak azalduz.

Gure bezeroekiko harremana automatizatua, azkarra, seguru eta pertsonalizatua izango da. Gure helburua da bezeroei erosketa esperientzia eroso eta atsegina eskaintzea, beti ere behar duten momentuetan gurekin harremanetan jarri ahal izateko.

Lehenik eta behin, webgunean eros daitezke produktuak, denda fisiko batera joan gabe. Webguneak erosketa prozesua azkar eta erraz egingo du, eta edozein ordutan eta edozein lekutatik eskuragarria egongo da.

Gure bezeroekin komunikatzeko, gizarte sareak erabiliko ditugu. Bertan, bezeroek gurekin zuzenean harremanetan jarri ahal izango dute, galderak egin eta gure produktuei buruzko iritzia partekatu. Horrela, bezeroekin seguru eta konfiantzazko harreman bat sortuko dugu.

Azkenik, bezeroarentzako zerbitzua izango dugu, telefono bidez laguntza eskaintzeko. Bezeroek zuzenean gurekin harremanetan jarri ahal izango dute eta pertsonalizatutako laguntza jasoko dute. Horrela, gure bezeroek babesa eta laguntza izango dute beti.